

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresa agentzia bidai bat denez, gure bazkide edo hornitzaile nagusienak, lehen aipatutako, Alsa eta Iberia enpresak izango dira. Hauek, garraio enpresak dira.

Enpresa hauek gure agentziarako garrantzitsuak dira, hainbat arrazoiengatik. Arrazoi garrantzitsuenak jarduera ekonomikoak gauzatzeko behar diren baliabideak lortzeko, ondasunak edo produktuak lortzeko dira. Gure enpresa beste enpresa batzuekin egingo ditu aliantzak, kasu honetan, Alsa eta Iberia enpresekin. Enpresa horiekin aliantzak egingo ditugu baliabideak eskuratzeko.

Hau dena esanda, gure funtsezko eragileak Alsa eta Iberia izango dira. Hauen rola, garraioaren %10eko deskontua egitean izango da, guk trukean ere zehoze eginda noski. Aipatu dugun bezala publizitatea emango diegu proposatzen dituzten zerbitzuei, eta guk konpentsatuko diegu, ezagunagoak izan daitezten. Gure harremana Alsa eta Iberia enpresekin elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa daukagu. Elkarrekin lan egitea biontzat baliagarria da.

Batetik, sare sozial bat sortzeko gaitasuna, bidaiak egiteko eta osatzeko gaitasuna, eta, bestetik, salmentarako abilezia daukagu, gure kontaktuekin harremanak hobeagoak eta erakargarriak izateko.

